

# **AbsysNet-era konektatzeko prozedura**

**2016ko Apirila**

c/ Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ  
– tef. 945 01 94 70 – Fax 945 01 95 34 –  
e-mail: [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus)



## AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
AbsysNET-ERA KONEKTATZEKO PROZEDURA	3
AbsysNet-era konektatzeko eman beharreko urratsak	3
Mezuak	5
SARERAKO SARBIDE-ABIADURA HOBETU	7
ABSYSNET-ETIK ATERATZEKO PROZEDURA	8

## AbsysNET-ERA KONEKTATZEKO PROZEDURA

Atal honetan AbsysNetera sartzeko jarraitu beharreko prozedura azaltzen da.

**Ezin bazara konektatu edozein arrazoi dela medio, Zuzenean zerbitzuaren bitartez Kulturako CAUrekin (Erabiltzailearen laguntza zentroa) harremanetan jarri 945 016850 telefonoan.**

**Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:00etatik-19:30etara.**

### AbsysNet-era konektatzeko eman beharreko urratsak


1. Programan identifikatu ahal izateko beharrezkoa da Izenpek egindako ziurtagiria izatea (<http://www.izenpe.com>).  
Sartu Izenpe txartela irakurgailuan.




2. AbsysNet (Liburutegi-kudeaketarako sistema bateratua) web ingurunean funtzionatzeko diseinatutako aplikazioa da.  
Arakatzailera ireki eta honako URL helbidera konektatu:

**[www.katalogoak.euskadi.net/elsn](http://www.katalogoak.euskadi.net/elsn)**


3. Honako leihoa agertuko da Izenpe txartelaren erabiltzailearen izenarekin.



4. Onartu eta beste lehio bat agertuko da, bertan Izenpe txartelarekin emandako PIN-zenbakia idatzi.




5. Programa irekiko da eta leanean hasiko gara.



## Mezuak


AbsysNet-ek aplikazioko erabiltzaileen artean mezuak bidali eta jasotzeko aukera eskaintzen du.

AbsysNet-eko idaztegia mezu berri bat eransteko, “Gehitu” botoia klikatzen dugu eta leiho berri bat irekiko da. Bertan, mezua nori bidali aukeratu beharko da.



Mezu hartzaileen artean aukera ezberdinak ditugu:

- Erabiltzailea → Sareko guztiak, administratzaile direnak eta ez direnak.
- Sukurtsala → Soilik erabiltzaile bakoitzak esleituta duen sukurtsalari.
- Biblioteka → Soilik erabiltzaile bakoitzak esleituta duen bibliotekari.




Beharrezkoa bada “Gabetze-eguna” eremua aldatu dezakegu. Besterik adierazi ezean programak bost eguneko epea ematen du mezua bidaltzen denetik.


“Gaia” eta “Mezua” eremuak betetzen ditugu ondoren. “Mezua” eremuak gehienez 512 karaktere izan ditzake. Mezua bidaltzeko, “Onartu” botoia klikatzen dugu.

Mezu berri bat jaso orduko programak pantaila baten bidez ohartaritzen digu.






Mezua irakurtzeko ezkerreko ikonoa sakatzen dugu




## SARERAKO SARBIDE-ABIADURA HOBETU

Interneten gomendatutako konfigurazioa duzuela ziurtatzeko, honako urratsak jarraitu beharko dira:


- 1) Klikatu *Tresnak* eta ondoren → *Internet aukerak*



- 2) Behin leihoa ireki ondoren, *ezarpenak* botoian klikatu.



- 3) *Internet Explorer* abiarazten dudan bakoitzean aukera markatuta dagoela ziurtatu; horrela ez bada, aldatu eta *adós* botoia sakatu.



## ABSYSNET-ETIK ATERATZEKO PROZEDURA

AbsysNet-etik ateratzeko honako tekla sakatuko dugu.